

# Akordioaren jarraipena

2025EKO MAIATZAREN 9AN SINATUTAKO LAN HITZARMENA

2025-2026 ikasturteko greba eta mobilizazio dinamikaren ondorioz **sinatutako lan hitzarmenak eta plantillak esleitzeko irizpideen akordioak** hobekuntza nabarmenak jasotzen ditu, **lan baldintzak hobetu** eta **hezkuntza publikoa indartzeko** funtsezkoak direnak.

**LABek** baliabideetan jarri zuen **uneoro indarra**, ezinbestekoak izateaz gain, estrategikoak direlako hezkuntza kalitatea hobetzeko. Ondorioz, eta **Hezkuntza Sailak sinatutakoa osotasunean bete gabe** jarraitzen badu ere, ikasle talde gutxiago izan arren, irakasle gehiago izan ditugu ikasturte honetan.



## 2025eko maiatzaren 10ean indarrean jarri ziren neurriak

### > Lizenziak eta baimenak

- ✓ Bitarteko langileak karrerako funtzionarioekin parekatzea.
- ✓ Gurasotasun baimena: derrigorrezkoak ez diren asteak jarraian hartuz gero, 2 aste gehigarri.
- ! **Edoskitzea:** jardunaldi osoan 28 lanegun; %83,33rekin 29; 2/3an 36; 1/2an 48; eta 1/3an 72!!!
- ✓ Urgentziazko baimena: adin txikiko seme-alabak medikuen kontsultarako edo larrialdietara laguntzeko eguneko 4 orduko baimena.
- ✓ Urte sabatikoa bitartekoa langileentzat: aurreko bost urteetan ikasturte osoko plaza bat lortu dutenentzat.



## 2025-2026 ikasturtean indarrean jarri diren neurriak








### > Gazteberritze plana

- ✓ 60tik 65 urtera irakastorduen 1/3 murrizteko aukera, eta 65 urtetik erretirora lanaldiaren 1/2 murriztea.
- ✓ Modalitate metatuan, 18 hilabetez erretiroa aurreratzea.







### > Lan zama arintzea

- ✓ Desburokratizazio batzordea martxan jartzea.




**> Ordezko irakasleak**

-  • Udako kobraketa: uztailea eta abuztuaren kobratu, kotizatu eta puntuatu egingo da 165 egun edo gehiago kontratuean egonez gero.
-  • Bakantedunek karreradun funtzionarioen eskubide berdinak izatea.
-  • Jarduketa-plan espezifikoa 55 urtetik gorako irakasle ordezkoez.
-  • Irailaren 1ean jabetza egin ezin dutenei azaroaren 30 bitarte lanpostua gordetzea.
-  • Ordezkoei kontratua ez etetea titularrak aldi baterako ezintasun egoeran jarraitzen duen bitartean.
-  • Ordezkoa ikastetxera iristean titularra bertan badago, kobratu eta puntuatzea.
-  • **III. eranskina** urtero negoziatzea, espezialitate bakoitzerako behar den titulazioak zehazten duena.

**> LPZn txertatu beharreko irizpideak**

-  • Hizkuntza proiektuetarako koordinatzaileen pilotajea.
-  • Aholkulari eta orientatzaile ordu kredituak gehitzea.
-  • HIPI eta EUSLE programetan ordu kreditu eta ratio berriak ezartzea.
-  • Berrikuntza proiektuetan lan egiten duten Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako irakasleentzako gutxieneko irakaskuntza ordu baten murrizketa.
-  • Haur eta Lehen Hezkuntzan **23 ordu lektiboetatik 22ra murriztea**, "eskola-orduak murriztearen ondorioz sortutako eskola-orduak betetzeko behar diren ordu-kredituak" esleituz.
-  • Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan **17 ordu lektibo izatera pasatzea**, gehienez, Hedatze eta analogoak diren programak barne.



**> Erosahalmena berreskuratzea**

-  • %7ko soldata igoeraren %2a jasotzea.
-  • BeA figurek, aholkulariek eta orientatzaileek kargu akademikoak jasotzea.
-  • Jardunaldi murriztuan dauden irakasleek kargu akademikoak osorik jasotzea.

**> Enplegua egonkortu eta bermatzeko**


- Behin-behinekotasun tasa %5etik behera kokatzea.
- Oposaketak hiru urteko zikloetan egitea.
- Lanpostu guztiek C1 hizkuntza eskakizuna izatea.
-  • Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoak hezkuntzan mantentzea.

**> Lizentzia eta baimenak**

-  • Egonaldiak gauarekin konpentsatzea: egun eta erdiko konpentsazioa pernoka-egun bakoitzeko, eta bi eguneko jai egunean gertatzen bada.
-  • Norberaren interesagatiko lanaldi-murrizketa metatzea: murrizketa lanaldi erdikoa bada, lanaldi osoan lan egingo da irailaren 1etik urtarrilaren 31ra edo otsailaren 1etik ekainaren 30era. Ordainsari guztien erdia jasoko dute ikasturteko hamabi hilabeteetan.

**> Lan osasuna, euskara eta berdintasun planak**

- Lanpostua egokitzeko protokoloa ezartzea.
- Lanpostuz aldatzeko protokoloa ezartzea.
- Irakasleak hizkuntzan eta metodologian gaitzea bultzatzea, euskal kultura transmititzeko gaitasuna barne. Besteak beste, irakasleak prestatzeko eta hobetzeko plan bat egitea, eta euskarazko C2 maila lortzeko prestakuntza sustatzea.
- Osasun azterketak 3 urtean behin egitea.
- Berdintasunerako Jarraipen Batzordea sortzea.
- LGTBI pertsonen eskubideen aldeko plana jasotzea.

**2026-2027 ikasturtean indarrean jarri beharreko neurriak****> Lan zama arintzea**


- Desburokratizazio plana martxan jartzea.

**> LPZn txertatu beharreko irizpideak**

- ! Ratioak: 22 ikasleko ratioa Lehen Hezkuntzan, ikasle errepikatzaileak barne.
- ! Ongizate eta babeserako koordinatzaileentzat (OBK) ordu kredituak ematea.
- ! EHI (ALE) plaza egonkorak bihurtzea, eta talde kopuruaren araberako kredituak ematea.
- Hizkuntza proiektuetarako koordinatzaileak HKI altu eta oso altuko zentro guztietan.
- ! Haur eta Lehen Hezkuntzan irakastorduak 21era murriztea, "eskola-orduak murriztearen ondorioz sortutako eskola-orduak betetzeko behar diren ordu-kredituak" esleituz.

**> Erosahalmena berreskuratzea**

- %7ko soldata igoeraren %2,5a jasotzea, 2026ko irailtik aurrera.

**2027-2028 ikasturtean indarrean jarri beharreko neurriak****> LPZn txertatu beharreko irizpideak**

- Hizkuntza proiektuetarako koordinatzaileak zentro guztietan.
- Zuzendaritza-taldeetarako ordu-kreditu berriak ezartzea.

**> Erosahalmena berreskuratzea**

- %7ko soldata igoeraren %2,5a jasotzea, 2027ko irailtik aurrera.



Betetze bidean



Bete gabe



Ikusteke



**Akordioaren korapiloak: akordioan jasota egon arren, Hezkuntza Sailak ez ditu puntu hauek bete:**

### > 2025-26 ikasturtean

- **HH-LHn 23 ordu lektiboetatik 22ra murriztea:** Ordu lektiboak murriztu arren, 2025-26 ikasturteko LPZn Sailak ez du behar besteko baliabiderik bidali ikastetxeetara.
- **BHn eta Lanbide Heziketan 17 ordu lektibo izatea gehienez:** Sailak ez du behar besteko baliabiderik bidali ikastetxeetara; ondorioz, ikastetxeek bi bide hartu behar izan dituzte: beste proiektuetako orduak baliatzea irakastordu bat jaisteko (hezkuntza kalitearen kaltetan) edo lanpostuak 18 irakastordutan ixtea.
- **Edoskitzea:** Hezkuntza Sailak proportzionaltasuna bertan behera utzi du.
- **III. eranskina urtero negoziatzea:** abenduan ekarpenak bidali eta bilera egiteko eskaera bat baino gehiago egin arren, Sailak ez die ekarpenei erantzun ezta bilerarik deitu ere.
- **Berrikuntza proiektuengatiko** BH eta Lanbide Heziketako irakaskuntza ordu baten murrizketa: Sailak ez du ordu jaitsiera horrengatiko argibiderik eman.

### > 2026-27 ikasturteari begira (LPZren aurreikuspena aintzat hartuz)

- **HH-LHn 22 ordu lektiboetatik 21era murriztea:** 2026-27 ikasturteko, LPZn Sailak behar besteko baliabideak txertatuko dituen ikusi beharko da.
- **Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan** 17 ordu lektibo izatea gehienez: LPZn Sailak behar besteko baliabideak txertatuko dituen ikusi beharko da.
- **Ratioak:** 22 ikasleko ratioa LHko 1. mailan soilik aplikatuko du Sailak.
- **Hezi+:** Bigarren Hezkuntzan, He-Hobetuz egitasmoaren baitan, zuzeneko dedikazio orduak ordu osagarri moduan txertatu nahi ditu Sailak, gehienezko irakastorduak 17tik gora jarritz.
- **EHI (ALE):** adostutako kredituak esleitzeko, talde kopuruaren zenbaketa araututa ez dauden irizpide murriztaileetan oinarritu du Sailak.
- **OBK** (Ongizate eta babeserako koordinatzaileak): Sailak ez du baliabiderik kargatu LPZn.

2025eko maiatzaren 9an sinatutako akordioak **lorpen nabarmenak** jasotzen ditu; horietako gehienak bete egin dira, eta **LABek borrokatutako baliabide asko ikastetxeetara iritsi dira**. Hala ere, **Hezkuntza Sailak ez du adostutakoa osotasunean bete**, eta ondorioz, **akordioa osotasunean bete dadin borrokan jarraituko du LABek**.

*ekinez lortuko dugu!*